



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2022ko irailaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita bigarren urtean, irailaren zortzian, zortzietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeke gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, HEGUY Antton.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2022ko irailaren 2a

Afitzatze eguna : 2022ko irailaren 2a

5. ERABAKIA: TOKIKO ERAKUNDEENTZAKO ZERBITZU ESKAINTZA KONTRATUAN IZENA EMATEA

(9.1 nomenklatura - Beste eskumen-esparruak)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio « CAST FINANCES » sozietatearen zerbitzu eskaintza baliatzea. Sozietateak Frantziako BORDES (64510) herrian du egoitza, 40 rue Aliénor d'Aquitaine helbidean eta Rémy CASTAIGNAU duela kudeatzaile-kide.

Azaldu du CAST FINANCES sozietateak hornidurak erosteko negoziazioak egiten dituela, bere bazkideek erosgaiak prezio baldintzarik onenean ukan ditzaten.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONETSI DU**, herriak CAST FINANCES sozietatearen zerbitzu eskaintza kontratua izenpetzea 12 hilabeterako. Kontratuaren eraberritzea berez eginen da urtetik urtera, aldeetako batek gutxienez bi hilabete lehenago gaitzetsi ezean.

- **ONARTZEN DU** eranskinean den aurrekontuaren arabera, hilabetero 100 € ZK ordaintzea zerbitzu horrentzat,

- **BAIEZTATU DU**, gastu horrentzako kredituak badirela 2022ko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 12

Balitzko boz kopurua : 12

ALDE : 12

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko irailaren 13an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2022/09/14an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/09/14an.